

## **KREOSOTAZ TRATATUTAKO ZURAK**

### **Zer da kreosota?**

Kreosota terminoa produktu kimiko talde bat deskribatzeko erabiltzen da: egur-kreosota, harrikatz-alkaternaren kreosota, harrikatz-alkaterna, harrikatz-alkaternaren hondakinak, eta harrikatz-alkaternaren hondakinen lurrunkorrak. 200en bat konposatu kimikoren nahasketa da, gehienak hidrokarburo aromatikoetatik eratorriak, ikatza edo egurra tenperatura oso altuan berotuz lortzen dena. Oso sukoia da, errektuntzaz ke toxikoak erazten direlarik, eta ez da batera disolbagarria uretan.

### **Nola identifikatuko dut?**

Likido oliotsua da, beltz-marroi kolorekoa, eta usai oso ezaugarritsua du, kea, gasolina eta olioaren antzekoa.

### **Non aurki daiteke kreosotaz tratatutako zura?**

Kreosota egurra kontserbatzeko, babesteko eta iragazgaitz egiteko erabili izan da, horrela bere iraupen-denbora gehitzen baita, suntsitu dezaketen intsektu, onddo eta bakteriak ekidinez.

Toki hauetan topatu genezake:

- trenaren trabesetan
- telefono- eta argi-zutoinetan
- zubietan, egurrezko etxeetan
- lorategi eta eraikinetako itxitura- eta dekorazio-osagarrietan, etab.

### **Zein da arazoa? Zer eragin izan dezake osasunarengan?**

- Kreosotak substantzia minbizi-sortzaileak dira eta ondorio kaltegarriak eragin ditzakete osasunean.
  - IARC-ek (Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentzia) 2 A taldean sailkatzen ditu kreosotak: Agentea edo

nahasketa, ziurrenez, minbizi-sortzailea izango da gizakiarentzat.

- Minbizi-sortzailea izateaz gain, bere eraginpean denbora luzez egon ezker, begietako, azaleko eta arnas-traktuko narritadura eragiten ditu.

### **Nola jartzen da bere eraginpean?**

Kreosotaren eraginpean egon daiteken populazio nagusia produktu hori maneiatzen duen langilea da; zuzenean edo produktuaz inpregnatutako materialen bidez gertatu daiteke. Hala ere, gainerako populazioak ere jasan dezake erasan hori zenbait egoeretan:

- substantzia berarekin edota zoru edo material kutsatuarekin **kontaktu zuzena** ematen bada (larruazaletik).
- kreosota lurrinak **arnasteagatik** (arnas-bidea).
- **esku-aho kutsaduragatik**, alegia, kreosotaz kutsatutako zoru edo materialak ukituta. Ur edo elikagai kutsatuak **irensteagatik** ere eman daiteke (ahotik).

### **Jakin beharrekoa:**

- Salmenta, orokorrean, ez dago galarazita. 2002/12/31 baino lehen tratatutako egurrak badira, posible izango da bigarren eskuko merkatuetan salerostea, berrerabiltzeko.
- Baina, **erabilera mugatuta dago** egurra zertarako den arabera, nahiz bigarren eskukoak izan, nahiz lehenengo aldiz merkaturatu. Zur tratatua ezingo da erabili:
  - eraikinen barruan, xedea edozein izanda ere,
  - jostailuetan,
  - joku-zelaietan,
  - kanpoko parke, lorategi, eta jolaserako eta aisialdirako instalazioetan, baldin eta, sarritan larruazalarekin kontakturik egoteko arriskurik baldin badago,

- lorategiko altzariak egiteko, besteak beste, kanpineko mahaiaik,
- honako hauek egin eta erabiltzeko, eta birtratatzeko:
  - laborantzarako edukiontziak,
  - gizakiek edo animaliek kontsumitzeko diren lehengai, bitarteko produktu, edota produktuekin kontaktua eduki dezaketen ontziak,
  - goian aipatutako produktuak kutsatu ditzaketen beste material batzuk.

- Saltzaileak debekatutako erabileren berri eman behar die erosleei.

### **Argibide gehiago nahi izanez gero:**

- Osasun Publikoko Zuzendaritza.  
Tel.: 945019201
- Arabako Osasun Publikoko Zuzendariordetza:  
Tel.: 945017160
- Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendariordetza:  
Tel.: 944031500
- Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordetza:  
Tel.: 943022700
- Helbide elektronikoa: [dirdsalud-san@ej-gv.es](mailto:dirdsalud-san@ej-gv.es)
- Web-orria: [www.osanet.net](http://www.osanet.net)

### **Araudia:**

- 552/2009 EE Erregelamendua (Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren, EBAOren, 164. zk.a, 2009/06/26koa) (REACHen XVII. eranskina aldatzen du).
- 1907/06 EE Erregelamendua (Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren, EBAOren, 396. zk.a, 2006/12/30ekoa) (REACH).